



Larrialdi Zerbitzua

Behaketa eremua



Ongi etorri Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Larrialdi Zerbitzuko Behaketa eremura. Gurekin zauden bitartean ahalik eta egonaldi atsegina izatea eta alaitzen bizkortzea nahi dugu.

Zure esanetara gaude edozein zalantza argitzeko, eta gure laguntza hobetzeko egiten diguzun edozein iradokizun jasoko dugu.

EGONALDIA:

- Ospitaleratuta zauden bitartean **zure gelan egon beharko duzu**.
- Gorde itzazu zure **objektu pertsonalak** gelako armairuan.
- Gainerako pazienteekiko errespetua gordetzeko, **saia zaitetz apal hitz egiten** eta ahalik eta zarata gutxien ateratzen.
- Erabil ezazu oheburuan dagoen **txirrina** erizainei deitzeko, laguntza behar duzunean.
- Unitatearen barnean **bi komun daude**, soilik pazienteek erabiltzeko. Erizainek esanen dizute non dauden eta erabil ditzakezun ala ez, kontuan hartuta zure ospitaleratzearen arrazoia edo egoera.
- **Komuna erabili behar duzunean, deitu erizainei**, behar duzun laguntza jasotzeko.

OTORDUEN ORDUTEGIA:

GOSARIA: 9etan BAZKARIA: 13etan
ASKARIA: 17etan AFARIA: 20etan

INFORMAZIO MEDIKOA:

Pazientearen osasun egoerari buruzko informazioa aldiro emanen da, medikuaren bisitaren ondotik eta betiere aldaketa nabarmenik baldin badago. Ez da informaziorik emanen telefonoz, ongi justifikaturiko salbuespenetan izan ezik. Komeni da senide/laguntzaile baten telefono zenbakia ematea, harremanetarako.

LAGUNTZAILEAK:

- Senideak eta/edo laguntzaileak **1. igogailutik sartu behar dira**. Igogailu hori Larrialdietako Harreraren aurrean dago, sarrerako korridore nagusian.
- Senideek eta/edo laguntzaileek **gelan egon behar dute**, asistentziaren dinamikan trabarik ez egiteko.
- **Pertsona batek** bakarrik lagundu ahalko dio pazienteari, eta betiere zentroko arauak errespetatu beharko ditu.
- **Senideen arteko txanda aldaketak** 1. igogailuaren atondoan egingen dira.
- **Ez da nahitaezkoa gauean laguntzailea izatea**, salbu eta komeni dela adierazten bada; oro har, pazientearen eta haren senide edo laguntzailearen esku utzi ohi da erabaki hori.
- **Laguntzaileen komuna** 1. igogailutik Behaketa eremura sartzeko korridorean dago, sarrerako atea baino lehentxeago.
- Osasun-langileek adierazitako, **infekzioen prebentziorako gomendioak** jarraitu.
- **Bilagailudun eskumuturrekoa** Harreran utzi beharko da, baldin eta langileek ez badute jaso pazienteari alta ematerakoan. Etxera iritsi eta eskumuturrekoa gainean badaramazu, itzul ezazu zure osasun-etxean.